

## OIARTZUNGO HERRI-MUSIKALDEA

*Gure eskualdean kontserbatu den altxorra ikusirik, Oiartzunaldea herri musikan oparoa, emankorra eta aberatsa izan dela eta dela ez dago zalantzarik. Baina hori ez da kasualitatez gertatu, Oiartzunen lehen eta orain gai hau landu eta zaindu egiten dela esan beharra dago eta hori izan daiteke honen arrazoietako bat.*

*Hori frogatzeko, hor ditugu herri musikari buruz azken bost urte-tan formato ezberdinetan Oiartzunen egin diren argitalpenak.*

### 1998.- OIARTZUNGO KANTU ZAHARRAK (KD)

Ergoiengo Pagoaldean kokaturik dagoen "Pagoarte" kultur elkarteak antolatutako, 1998ko ekainaren 13an Pagoaldean "Oiartzungo kantu zaharrak" musika emanaldia ospatu zen. Kontzertuan herriko abeslari eta musikari ezberdinek parte hartu zuten: Juan Mari eta Julen Lekuona, Antton Valverde, Jon Bergaretxe, Jon Txurio, Alaitz & Maider, Lartaun Abesbatza, Asier Bergaretxe,... Hauek, gidoi bat jarraituz, Oiartzungo kantu zahar mota ezberdinez osatutako emanaldia eskeini zuten: 1. Usadio baten osagai direnak, 2. Prozedura ludikoz eta koralez ondutako, 3. Balada tradiziozkoak eta arruntak, 4. Herri-lirika, 5. Bertsolaritza. Bertan kantatu eta jo zen guztiarekin eskuragai duzuen KD bat argitaratu zen (Elkar KD-505).




### 1999.- OIARTZUNGO HOTSAK (Bideo-zinta)

Herri Musikaren Txokoa zentroaren antolaketa lanean ari ginela, Udalaren babesarekin urtero egiten den Bideo berriaren gaia aukeratzekoan, Museo Batzordeak 1999rako herri musika aukeratu zuen. Bideo zinta horretan besteak beste eta nagusiki Oiartzun herriarekin lotura handia duten bost musika eta hots mota agertzen dira: Kanpaiaren joaldi ezberdinak, Ote jotzearen "musika", Toberak, Txistulariak eta Soinujoleen "trikitixa". Interesgarria bada gai hauei buruz idatzitakoa irakurtzea eta egindako hots grabaketak entzutea, abesatsagoa da, guzti horretaz gainera, non, zeinek, noiz eta nola egiten den ikustea.

### 1999.- OIARTZUNGO KANTUTEGIA / Bertako herri memoriatik (Liburua)

Aurretik Oiartzungo kantu zaharrak beste kantutegitan bildu izan dira. Horrela, besteak beste M. Lekuonak egindakoaz gain, R. M. Azkuek Oiartzunen bildutako 9 kantu sartu zituen bere "Cancionero Popular Vasco" kantutegian eta A. Donostiak 19 bere "Cancionero Vasco" delakoan. Oraingo honetan, Oiartzungo Udaleko Kultura Batzordeak 1999ko Mugari bildumaren 6 zenbakia duen Juan Mari Lekuonak egindako "OIARTZUNGO KANTUTEGIA / Bertako herri memoriatik" liburuz ari gara.

J.M. Lekuonak 242 kantuz osatutako bilduma hau, iturriaren arabera hiru zatitan



banatu du: Kantu Zaharrak, Bertso Berriak eta Kantugintza Berria. Egileak, kantuen hitzak eta doinuen partiturak sartzeaz gain, informazio asko eta azterketa sakona eskeintzen du lan handi honetan. Ikusten denez, "Oiartzungo Kantutegia" ez da mugatzen kantu zaharrak biltzera eta oiartzuar musika eta kantu egile berriek sortutako kantuek ere hor daude, herri honek ematen jarritzen duela erakutsiz. Bestalde "kantu mota"ren arabera, apologoak, artazuriketako, asmakizunak, balada arruntak, burla egitekoak, dantzak, didaktikoak, ditzolarien erakoak, eguberri kantuek, erlijiozkoak, erromantzeak, ezkontza kantuek, gorazarrea, haurrak jolastekoak, maite kantuek, ohiturazkoak, otoitzak, sehaska kantuek eta ume-jolasak, guztira 18 atal ezberdinetan sailkatutako daude: Beraz, gure herrian orain arte bizirik mantendu den altxorak horretan jarrai dezan, betiko sistemak galtzen eta aldatzen ari diren garai honetan, gaur egungo trasmisio tresna berri hauek eralbiltzea ezinbestekoa iruditzen zaigu eta arlo horretan hiru lan hauek oso egoki eta garrantzizkoak dira. Hemendik gure aholkua zera da, material hau ez baduzu eskuratu, bakarka, familian, kuadrillan, eskolan edo bestela lan hauek irakurri, entzun eta ikustera animatzen zaituztegu, gure kulturaren alderdi hau ezagutzeko eta ikasteko, bizitzeko eta gozatzeko.

# KONTZERTUAK HM Txokoan

## Udako kontzertua

2003ko uztailaren 5ean - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

### Dultzaina Bizkaian

*Joan den mendearen hasiera arte dultzaina Bizkaiko erromeria guztietan erabili da.*

*Gerra aurreko urtetan plazatan zuen esparrua eta Euskal Herrian sartzen ari ziren beste musika tresnekin "borrokatu" behar izan zuen, Trikitixa, Jazz band eta abar. Ondoren, gudak ekarri zuen kultur galeratako bat herri musikak sufritu zuen: ez dira erromeriak egiten, instrumentu asko galtzen dira eta dultzaina egilerik ez dago.*

Hala ere, belaunaldi honetako azken dultzaineruak ezagutu, grabatu eta beraiengandik ikasi egin ahal izan dugu.

Metalezko dultzaina honen erabilera antzeko samarra izan da Bizkaian eta Gipuzkoan. Bizkaiko dultzainak, behar bada, Iparralde eta Nafarroako doinuen eragin txikiagoa izan du.

Erromeriatan gehien jo izan diren doinuak jotea, porrusaldea eta martxea izan dira, eta nola ez, modan zeuden doinu eta dantza erritmoak, pasodobleak bereziki.

Javier Santamaria 70.eko hamarkadaren amaieran hasi zen dultzaina jotzen Bediako Juan Aiesta dultzaineru zaharrenekin. Geroztik Bizkaian geratzen ziren dultzaineru gehienak ezagutu ditu, baita bere errepertorioa ere.

Agustin Alonso danborreroa da, (dultzainerua ere bai), eta azken dultzaineru zahar haue-tako batzuei danborra jotzen lagundu die 80.eko hamarkadan burututako azken emanaldietan.

Biak ere, elkarrekin ibili dira

Bizkaiko dultzaineru zaharrene-gandik ikasten eta doinuak grabatzen, eta instrumentu hau ezagutarazteko egin diren hainbat mahai inguru eta emanalditan parte hartu izan dute.

Dultzaineruak izateaz gain trikitixa, alboka, txistua, gaita, ... ere jotzen dituzte eta hamarkada luze batez Bilboko Santutxu auzoko "Gaztedi" dantza taldeko musika ardura eraman dute.

### PROGRAMA

*Erromeri doinuak joko dira, hain zuzen, jotea, porrusaldea eta martxea, baina baita zenbait pasodoble, baltsa, polka eta beste-lakoak ere, dultzaineru zaharrene-gandik jasotako doinuak. Dultzaineru hauen doinuak joko ditugu: Francisco Monasterio "Drogas" Peñekoa, Juan Aiesta Bediako, Patxi Bilbao Dimekoa, Simeon Irigorri Lemoakoa, Juan Bilbao Mañarikoa, Pedro Jose Etxebarria Maumakoa, Nikolas Jaio Durangokoa eta Isidro Montalban El Regatokoa.*



# COBLA DE TRES QUARTANS DE LA CIUTAT (Katalunya)

## COBLA DE MINISTRERS

"Cobla de ministrers" delakoa, musikari kopuru handiena duen taldea da herri kultura katalanean. Gaur egun, izen honekin, beste talde txikiagoetatik bereizten da. XIV. Mendetik, "cobla de ministrers" taldeen ardura izan da musika egitekoa, instituzio eta erlijio giroko agerpenetan zein jai girokoetan (dantza herrikoiak interpretatuz). Aipagarria da "sardana" izenez ezagutzen den dantzarekin gertatutakoa. Dantza honen eboluzioa dela eta, "cobla de ministrers" talde historikoa eraldatu egin da, egungo "cobla de çardanes" delakoan bilakatuz. Cobla zahar haren berrantolaketa, sardana interpretatzea hartu du berezkotzat.

Nolanahi ere, "cobla de ministrers" taldeak historiaren epe ezberdinetan iraun izanari zor zaio errepertorio arras aberats eta anitza osatu izana, eta horregatik da cobla mota hau errito, dantza, entremes, musika laguntza, "seguici", prozesio, kontzertu,... ezberdinetarako talde egokia.

izenez ezagutu ohi dena, beste zenbait lekutan "txirimia" izena ere baduena, taldearen eboluzio historikoaren ardatza da noski; "ministrer" hitza bera, txirimia jotzen zuenaz hitzegiteko erabili izan da han. Taldearen deskribapen ezberdinetan tresna hauek aipatzen dira besteak beste: kornamusa bat ("sac de gemecs"), Flabio i tamborí (esku bakarreko flauta eta danborra), eta txirimiak (bat eta sei bitarte).

Egun, Cobla de Ministrers de la Ciutat delakoa, bat edo bi Tarota, Sac de Gemecs bat, Flabiol i Tamborí bat, beste tronpeta natural bana edo bina, beste hainbeste Sacabuche eta Bajoi (Baixó) batek osatzen dute. Haizezko soinu-tresnez gainera, talde honetan perkusiozko soinu-tresna grabeak ere badira (Timbals).

## MITJA COBLA ETA COBLA DE TRES QUARTANS

Catalunyan badira Ministrers talde murrizagoak historikoki. Cobla de Tres Quartans eta Mitja Cobla direlakoak hain zuzen ere. Hiru eta bi musikok osatzen



"Cobla de ministrers" taldeak darabiltzan soinu-tresnak ezberdinak dira. Catalunyan "tarota"

d i t u z t e hauek hurrenez hurren. Cobla de Tres Quartans hori, osatu lezaketekornamusa bat eta Flabio i tamborino batek (Mitja Cobla) gehi "cobla de ministrers" h a r t a n aurki genezakeen beste soinu-tresna batek, edota zuzenean talde zabalago hartako hiru soinu-tresnek. Talde txikiago hauek izan dira herri

musikan zabalduenak, auzo eta herri txikienetako jaietara eraman baitzitzaketen.

"Cobla de Tres Quartans de la Ciutat" taldeko musikoak hauek dira:

-**Galdric Santana:** Kornamusa, Xirimia, Bajoi tenorra eta zuzendaritza.

-**Marc Riera:** Flabiol i tamborino.

-**Ferran Miquel:** Xirimia, Flabiol i tamborino.

Taldearen izena (Ministrers de la Ciutat), XVIII. mendearen amaiera aldera, Bartzelonako jaietako (Korpusa esaterako) "Àliga" entremesa laguntzen zuen taldearengandik hartu da. Taldea bera 1998. urtean sortu zen beste zenbait taldetako joleak bilduz, Lisboako Expo'98 zelakoan jotzeko helburuarekin, ordurako zenbait ekitalditan parte hartua bazen ere, hala nola "Palau de la Musica"ko liburutegiaren inaugurazioan eta St. Jordi egunean Palau Robert etxean. Geroztik hainbat emanaldi eskeini dituzte, zenbait aipatzearren: Laussaneko jaietan, Luzernako nazioarteko folklore jaialdian, Festival Internacional de la Cornamusa de Olot (Cornamusam) delakoan, Ordinoko "Trobada de Buners"en, eta beste askotan, horien artean entremes herrikoi ugari (Bartzelonako "l'Àliga" eta "el Lleó", Reuseko "els Cavallets", Vallseko "l'Àliga", Vilafrancako "els Pastorets", eta abar).

Cobla de Ministrers de la Ciutat taldearen errepertorioa oso zabala da lurraldez (Aragoiko Koroaren hedapen historikoa) nahiz kronologiaz. Lan hau guztia, ikerketen bidez egin da, organologikoak zein artxibokoak, eta batzutan lekuan lekuko bilketa eginaz. Horrek ez du galerazten musika egungo gertakaritzat lantzea, eta honela, gure garaion isla daramaten konposizio berriak ere interpretatzen ditu tartean.

## HERRI MUSIKA 2. JARDUNALDIAK

Oiartzun, 2003-11-29, 30

Bertsozale Elkarte eta Oiartzungo Bertso Eskolarekin elkarlanean, 2002ko azaroan ospatutako Herri Musika 1. Jardunaldiak egitasmoaren balorazio baikorrak bultzatu gaitu bide horretatik jarraitzera eta orain, aurten egiteko prestatzen ari garen 2. jardunaldien aurrerapena aurkezten dugu:

EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA eta HERRI MUSIKAREN TXOKOAK antolaturik, Oiartzunen, 2003-11-29 eta 30ean HERRI MUSIKA ETA HERRI DANTZA izenarekin HERRI MUSIKAREN 2. JARDUNALDIAK ospatuko ditugu.

Hona hemen egitarauaren aurrerapen bat: 2003-11-29, larunbata.

Goizean, mintegiak: Herri dantzarako herri musika jolea. Dantzari eta soinu-jolearen arteko loturak. Dantza taldeetako musikarien problematika. Gaurko egoera dantzari eta musikarien ikuspuntutik.

Arratsaldean. Gai hauei buruzko komunikazioen aurkezpenak.

Dantza eta Musika emanaldia. Herri Dantzaren eredu adierazgarri batzuen aurkezpena.

2003-11-30, igandea.

Goizean, herri musika eta herri dantza tailerak.

Arratsaldean erromeria.

Egitaraua zehazten denean izango duzue, zabalago, horren berri.



### LIZARRAKO LARRAIN DANTZA.

#### HIRU MENDEAKO DANTZA lanaren aurkezpena.

GIPUZKOAKO EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA eta HERRI MUSIKAREN TXOKOAK, herri kulturaren dihardugun bi erakundeok, Herri Dantza eta Musikari buruz egindako lan berri bat aurkezpena antolatu genuen, hau da, Lizarrako Larrain Dantzari buruz Lizarrako Gaiteroek eta Ibai-Ega Dantza Taldeak dantza honen inguruan egindako elkarlana.

Dantzari eta musikarientzat oso garrantzitsua den Lizarrako Larrain Dantzaren hasierako dokumentazio ugari agertzen da lizarratarrek osatu duten lan honetan.

2003ko apirilaren 26 larunbatean, eguerdiko 12etan, Herri Musikaren Txokoaren ondoko AUZOKALTE auzo elkar-teko aretoan egin zen. Aurkezpen honetarako egindako gonbidapenak erantzun zabala izan zuen eta "Auzokalte" elkarteko aretoa Gipuzkoako dantza talde eta herri musika taldeetako ordezkariak bete agertu zen. Bertan, egileek lanaren aurkezpen zabala egin zuten eta hain garrantzitsua izan daitekeen tresna hau nola erabil dezakegun erakutsi zuten.

Aurkezpenean agertu ziren taldeen ordezkari guztiei DVD formatoan egindako lanaren ale bana oparitu zitzaion.



### Erakusketa Mugikorra

#### Etxarri Aranatz eta Beasainen

Herri Musikaren Txokoak antolatutako "Euskal herri soinu-tresnak" erakusketa mugikorra maiatzan bi herritan ikusgai egon da.

2003ko maiatzaren 1, 2, 3, 4an Etxarri Aranatz, Nafarroako Trikitilari Elkarteak ospatutako Trikitixa Egunaren inguruan antolaturik, eta 2003ko maiatzaren 12tik 18ra Beasaingo Musika Eskolak bere 25. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien egitarauaren barnean.

### BISITARI KOPURUA

Martxoan: bisitari kopurua: 299  
Antolatutako taldeak: 13

Apirilan: bisitari kopurua: 188  
Antolatutako taldeak: 6

Maiatza: bisitari kopurua: 310  
Antolatutako taldeak: 13

*Bisitari kopurua ekaina arte::  
3.151*

### HERRI MUSIKAREN TXOKOAK

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org

